

# HERRIA

## TORTUREN PROBARIK EZ OMEN DAGO

Lehenengo, gizonaren gizatasu-  
nen desesperatzekoa da, Gobernu oso  
bati "probarik ez dagoela" entzun  
behar izatea oraindik; Amnesty-ren  
probak "terroristen deklarazioetatik"  
atereak direla, eta lotsagarriagoak.

Torturak ez da sekula probatze-  
rik egon. Alemaniako kontzentrazio-  
hesparru naziak ez zen sekula egiaz  
"probatzerik" egon, arik eta aliatuen  
eskuetan erori arte: bitartean "etsaia-  
ren gezur propaganda zikina" izan  
ziren beti. Eginahalak egin arren Guru-  
tze Gorri suizoaren komisiok ez  
zuen inoiz lortzen ezer probatzea eta  
Folke Bernadotte Markesaren komisi-  
o suediar "neutralak" berak, nahiz eta  
presoen beren delegazio batekin hitze-  
gin ahal izan (zaindariaik beti begira  
zeudela!) kontzentrazio-hesparru bate-  
tan, ez zuen lortu gehiago. Torturen,  
kontzentrazio-hesparruen eta Gulagen  
probatu ezinak historia luzeegiak eta  
umilagarriegiak dira, oraindik ere inori  
aipatzeko. Eta torturak probatu ezina-  
ren historia guztiak horixe dira justu-  
justu eta beste ezer ez: Auschwitz eta  
Gulagen historiak. Han bakarrik dago  
problema hori.

Problema horrela planteatzeak be-  
rak erakusten du non gauden.

Burla hutsa da proba kontu guz-  
ti hori, probak eman beharra tortura-  
tuaren beraren gain uzten den artean.  
Eta "probarik ez dagoela" entzuten  
dugunean, historiotaz ezer irakurri  
duenak - literatura ugari dago - nahi  
eta ez Hitler eta Himmler eta beste  
haiek gogoratu behar izaten ditu.  
Nahi eta ez.

Presoen txikizioak, torturak, ez  
dira urrutiko gauza ilun eta miste-  
riotsuak, sotileza juridiko zorrotzez  
edo prozedura mediku konplikatuen  
bidez probatu beharrean leudekeenak.  
Tortura batez ere komisarietan egongo  
da, baina kalean ere badago. Niri,  
behintzat, neuk asko bilatu gabe eto-  
rri izan zaizkit beti holako arazoak,  
Alemanian, Sudafrikan, El Salvadorren,  
ibili naizen toki gehienetan, aski per-  
sonalki urbil, aski garbi, zalantza  
askorik ez usteko moduan. Eta Euskal  
Herrian ere, probak nahi dituenak,  
aski du, gauzaotan probak izaten di-

(Joseba Arregiren heriotzeko ur-  
teburuan idatzia.)

ren modukoak bilatzea, izaterik ez  
daukaten modukoak eskatzen ibili ga-  
be. Hau da, egiaz **lagundu** egin nahi  
duenak, ez eskuak garbitu bakarrik  
erraz aurkitzen ditu probak. Pilato-  
sek ez, Pilatosek ez du inoiz aski  
probarik. Denbora gutxian historia as-  
ko dute arazook XX. mendean. Aus-  
chwitz, Gulag eta nahi adina beste,  
eta horietaz bildu den dokumenta-  
zioa. Nahiko ikusia dago zer moduko  
probarik ez dagoen, egoterik ez dagoen  
alegia, "Estatuaren aurrean" Estatuari  
torturarik probatzeko. Eta ordua da,  
probarik nahi baldin bada, egon litez-  
keen bezalakoak bilatzeko. Ez, behin-  
tzat, Estatuaren eta Estatu aparatoaren  
mailan: hor, gehienez ere, "error la-  
mentable"ren bat probatu ahal izango  
bait da. Ezer ez. Pertsona mailan,  
ordea, probak egiaz eman ditzakeen  
mailan, euskaldunak erraz aurki deza-  
ke nahikoa proba triste familiaz fa-  
milia. Zeini probatu nahi zaio, izan  
ere, torturarik badagoela? Torturatzai-  
leari?!...

XX. mendean ikusi ditugunak iku-  
si behar izan eta gero, hasieratik ber-  
tatik torturaren arazoa beti "probarik  
ez dagoela" horretara baztertzek, Hi-  
tlerek egiten zuen bezalaxe, berak  
erakusten du, egiaz nahi duguna ez  
dela soluzioa, soluziorik ezin izango  
duen planteamendu baten amaraune-  
tan problema nahastu baino, eta ustel-  
tzen utzi. Hortik hasiaz ez da inora  
joaten. Torturatzailearen joko arauak  
aldeaz aurretik onartzea da. Torturaren  
arazoa "kasu" batzuen arazotara  
bihurtzea alegia. Torturaren arazoa  
seriotan hartzen den momentutik, au-  
zitan dagoena Gobernua bera bait da.  
Justiziaren injustizia. Ordenu guztiaren  
oinarriak, zentzua. Torturaren arazoa,  
lehen-lehenik, haren posibilitatearen  
arazoa delako. Eta hori gehiegi da.  
Konplikatuegia da. "Politikoa" da, ba-  
tez ere. Eta guk planteamendu huma-  
nitario bat bakarrik egin nahi genuke,  
ez "politikoa". Planteamendu pertso-  
nal, individual bat eta etikoa soil-soil:  
egia den ala ez Joseba jo eta txikitu  
egin dutela. Zeinek. Izen propioak,  
proba konkretuak paper xuri batetan.  
Eta hori, azkenean, ez da planteamen-  
du pertsonala, erabat inpersonala eta  
anekdotikoa baino, "apolitikoa" iza-  
teko aitzakitan.